

LUNATICUS CIRCUS

Teatro Paraíso Antzerkia



GIDA DIDAKTIKOA



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



etxe
pare
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
BASQUEINSTITUTE



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN, CULTURA
Y DEPORTE

inaem
INSTITUTO NACIONAL DE
LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

PISTA PRESTATZEA

Irakasleak

Gida honen helburua irakaslea akuilatzea da, tresna pedagogikoak eman nahi dituen **Lunaticus Circus** izeneko antzezpena bertaratzea ikasgelako bizitzaren barnean une adierazgarria izan dadin, eta hurrek artearekiko sentsibilizazioa garatzeko lagungarri izan dadin.

Prestaketak edozein ekitaldiko osagai dira. Ikus-entzule bilakatu eta abentura eszeniko batez gozatzeko prestatzeak proposamen artistikora hurbiltzea eskatzen du, ikasgelatik.

Eremu horretan hainbat prestaketa egin ditzakegu haurrak istorio berri eta berezi bat topatzera akuilatzeko: Ilargiaren Zirkua a: **Lunaticus Circus**.

Elkarrekin, hezitzaile eta artistek, zirku-pista bat eraikiko dugu gure haurren eguneroko errealitatea oinarri hartuta, hurrei Bizitza eta Artea ikuspuntu desberdinetatik behatzeko aukera eman ahal izateko. Honela, "pista prestatzea" konpainia honek garatzen duen jarduera pedagogiko eta artistikoaren metafora ederra izango da.



ARE ZAILAGO! IKUSLEAK GARA

Ikuskizunerako prestatzea

Egun arrunt batean, eguneroko ekintzen erdian, gutun misterioso batek ikasgelaren errutina eten egingo du (*ikusitxontxeren amaieran atxikitutako gutuna*)

Bertan aurkituko dugu ***Lunaticus Circus*** antzezlaneko hiru pertsonaien gutun bat, Antzerkiko eta Zirkuko ikusle bilakatzeko gonbidapena luzatzen diguna. Pertsonaia hauek proposatuko digute antzokira joatea istorio bat ezagutzera, zirku-karabana zahar bat nola aurkitu zuten eta ahaleginez eta irudimenez ***Lunaticus Circus*** nola sortu zuten azaltzen digun istorioa hain zuzen ere.

Antzokira joateak Lurraldean barna beste leku batera joatea eskatzen du, hiria zeharkatzea eta bertako espazio eta azpiegitura adierazgarrienak ezagutzera.



Antzokira joatea bidaia txiki bat da, mimo handiz prestatu beharrekoa. Jolas bat proposatuko dizuegu: bidaiariaren azalean jar zaitezte eta joan abentura bila **Lunaticus Circus** izenekoarekin gozatzeko antzoki bat topatzeko.

Esperientzia biziki gozatzeko asmoz, gutunak hainbat bide iradokitzen ditu:

- 1.** Jakinminaren betaurrekoak sortu (*txostenaren amaieran datorren eredia erabili*).
- 2.** Bidaia prestatu, ikuskizunaren kartela ikasgelan zintzilikatuz https://www.dropbox.com/s/22hhruyp9ycepd/1_cartel_lunaticus_circus_EU.jpg?dl=0
- 3.** Herrialdeko kultura mapa sortu, antzokia eta beste baliabide batzuk kokatuz, hala nola liburutegiak, museoak...
- 4.** Familiei esperientzia hau jakinarazi.
- 5.** Antzerkira joan.

Paraiso Antzerkiko artistekin egingo den topaketak eguna eta ordua izango ditu. Hitzordua ahaztu ez dezagun, kartela ikasgelan ipiniko dugu eta abenturari ekingo diogu.





AURRERA ETA ADI!

“Lunaticus Circus”

Antzezpena

Ikusleak, maparen laguntzarekin, antzokira iritsiko dira. Bertan, antzokira sartzeko sarrera entregatuko dute. Dena prest egongo da ikuskizunari hasiera emateko, falta den gauza bakarra izango da ikusleek beren jakingura-betaurrekoak ipini eta istorioan murgiltzea.

“Gabezia Handiaren garaia da. Garai latzak dira Anton, Piru eta Nikorentzat. Hiru arlote hauek lanik gabe daude, janaririk gabe, etxerik gabe, eta noraezean dabilta pobreziatik ihes egiteko aukera baten bila. Kasualitatez, zorionez edo agian patuaren eraginez, zirku-karabana zahar bat aurkituko dute ezerezaren erdian.




Hiru galtzaile hauek, hasiera batean mesfidati agertzen badira ere, ulertu egingo dute dena errazago izan litekeela beren indarrak batzen badituzte, eta ondorioz, karabana ahaztu hori zirku ibiltari bilakatuko dute. Xalotasunak eramanda, zirku-artistak izatera jostatuko dira, zirku-saioak inprobisatuz, gogotsu baina erdipurdi.

Emaitza zirku ahul eta osatu gabea izango da, baina freskoa eta ausarta, bizitasunez eta sorpresaz beteriko zirkua, bizi-abentura berri bati ekiteko eta, elkarrekin, beren ametsak egi bihurtzeko aukera emango diena.

Dena den, gehiegizko anbizioaren ondorioz, ametsak amesgaizto bilaka daitezke ere...



*Zorionez, **Lunaticus Circus** amets egiteko, barre egiteko, bidaiatzeko eta errealitatea eraldatzen jostatzeko zirkua izango da”.*



IKUSKIZUNAK JARRAITU BEHAR DU!

Ondorengo jarduerak


Ikuskizuna amaitzean, emozioak ikusle bakoitzaren barrenean geratzen dira. Irudiak, pertsonaiak eta gaiak haur bakoitzaren esperientzia pertsonalekin barreiatzen dira, istorioari forma ematen dioten metaforak sortuz. Honela, ikasgelan landu daitezkeen esplorazio artistikorako bide berriak sortuko dira.

Hona hemen hainbat proposamen ikuskizuna gogora ekartzeko. Sakondu beharreko iradokizunak dira eta zuen proposamen pertsonalekin osa daitezke.

Abenturak aurrera jarraitzen du! Ireki begietako eta izpirituko atearak irudimenari zuen zirkua sortzeko!

LUNATICUS CIRCUS IKUSKIZUNAREN HURRENGO BIRARAKO ISTORIO BERRIAK ASMATZEA.

Lunaticus Circus zirkuko pertsonaiek beren birarekin jarraituko dute eta zuen laguntza behar dute magia-, akrobazia- edo fantasia-saio berriak sortzeko.



Lehenik eta behin, gure zirkua asmatuko dugu, talde txikietan saio edo esketx berriak inprobisatuz.

ZUEN ZIRKU-KARABANA ERAIKITZEA.



Kartoizko kaxa handiak erabiliz, zuen karabana diseinatu ahalko duzue eta zuen gustu pertsonalaren arabera apaindu. Halaber, zirku-pista bilaka dezakezue zuen istorio berriak antzezteko.

PERTSONAIEN BARRUAN SARTZEA.

Hiru arlote beharko ditugu, arropa zikin eta zaharrekin, eta elkarrekin zirku bat sortzea erabakiko dute, inoiz kontatu ez diren istorioak kontatzeko.

Hiru arlote horiek, zirkuaren pistan, zuen istorioaren beste edozein pertsonaia bilaka daitezke. Elementu xumeekin, hezle, trapezioko artista, mago eta beste hainbat gauza izan daitezke.

AURRERA ETA ADI, SAIO BERRIAK DITUGU!

Talde bakoitzak bere istorioa aurkeztuko du gainerako gelakideen aurrean, eta gelakideak publiko bilakatuko dira. Kuxinak, alfonbrak eta aulkiak erabil ditzakegu ikusleen eserleku gisa.

Arloteak eszenatokira aterako dira eta, ondoren, ikuskizunari ekingo diote. Gainera, musika, argiak eta abar erabili ahalko dituzte ikuskizunean.

Zorte on estreinaldian!



Kaixo!

Anton, Piru eta Niko gara, hiru kaleko txakur. Lehen, ez genuen elkar ezagutzen eta ez genekien ezer ere ez zirkuari buruz.

Baina egun batean, munduan barna, zirku-karabana zahar eta ahaztu bat aurkitu genuen eta gure bizitza aldatu egin zuen. Zirku-artistak izatera jostatu ginen eta, ahalegin eta irudimen handiarekin, Lunaticus Circus sortu genuen.

Orain, gure istorioa antzokian kontatzen dugu eta sorpresaz eta magiaz beteriko zirku inperfektu hau ikusleekin partekatzen dugu.

Gure istorioa ezagutu nahi al duzue? Horretarako, ikusle jakingura bilakatu beharko zarete. Nola? Jarrai itzazu adierazpen hauek:

1º Kartoizko betaurrekoak sortu ikuskizuna jakinguraz ikusteko.

2º Bidaia prestatu, ikuskizunaren kartela ikasgelan zintziilikatu. Bertan ikusi halako duzue emandariaren eguna eta ordua, eta baita zein Antzokira joan behar duzuen ere.

3º Arabako mapan kultura-espazioak kokatu, eta Antzokia ere bai. Ondoren, Eskolaren eta Antzokiaren arteko bidea marraztu.

4º Kontatu zuen familiei biziko dugun abentura, eta partekatu haiekin zuen zirrarara.

5º Azkenik, zoazte Antzokira zuen maparekin eta jakinguraren betaurrekoekin.

Antzokian dena prest egongo da ikusle jakingura izatearen abenturaz goza dezazuen.

Paraíso Antzerkia zain duzue!

Besarkada bat.



